

AUZITEGI NAZIONALA. Zigor Alorreko Laugarren Atalak epaituko du

Atzera bota dute Jon Abril kazetariaren defentsak jarritako erregu helegitea

Telebistarako irudiak hartzeagatik sei urteko espetxea eskatzen dute

Xabin Makazaga | DONOSTIA

Jon Abril kazetariak sei urteko espetxe eskaerari aurre egin beharko dio Espainiako Auzitegi Nazionalen, bi gazte nafarrek egoitza horretan deklaratu zuten egunean Berako Ttipi Ttapa herri telebistarentzat irudiak hartu zituelako. Auzitegi Nazionalen Zigor Alorreko 4. Atalak atzera bota du Abrilen defentsak aurkeztutako erregu helegitea: epaiketa eragotz zezakeen azken urratsa. Hala, talde armatuari laguntza ematea leporatuta, Zigor Alorreko 4. Atalak berak epaituko du Jon Abril.

Iñigo Iruin abokatuak aurkezturiko erregu helegitea atzera botatzeko, 4. Atalak argudiatu du «auzipetze autoan zehazten diren ekintzak ezein kasutan talde armatuari laguntza emateko delitua ez direnik» ezin dela on-dorioztatu, «une honetan behar den intentsitatearekin».

Gaur amaituko da epaiketarako defentsa idatzia aurkezteko epea. Bertan zehaztu beharko ditu Iruinek defentsaren lekuko, peritu eta frogak. EHUKo irakasle Txema Ramirez, Edorta Arana eta Josu Txueka, eta EGUNKARIAKO zuzendari Martxelo Otamendi izango dira defentsaren perituak: EGUNKARIAKO kolaboratzailea baita Abril, Ttipi Ttapan jarduteaz gain.



ANDER GILLENIA
Jon Abril.

Auzitegi Nazionalen fiskal Jesus Alonsok sei urteko espetxea eskatu zuen Abrilentzat, artean erregu helegitea erantzun gabe zela. Fiskalaren froga bakarrak dira Abrilek 2000ko abuztuaren 17an Auzitegiko atarian hartutako irudiak, eta polizi txostena —Ttipi Ttapa langileen zerrenda, finean—. Fiskalak berak onartu zuen Abrilen kazetari jarduna; baina deklaratzekoa zen gazte bat zerraman autoaren irudiak hartzean, «matrikula erabat identifikatu» zuela argudiatu zuen, eta horrek «interes periodistikorik» ez zuela. Horregatik leporatu diote talde armatuari laguntza ematea.

Defentsak aurkeztuko dituen

frogen artean, Jon Abrilek Ttipi Ttapa herri telebistan egindako lana agertzen duten irudiak eta Auzitegi Nazionalen beste telebistek hartutako irudiak izango dira. Irudi horietan, polizi autoen matrikulak sarri identifikatzen direla erakutsiko dute.

Abril zein magistratuk epaituko duten argitzeke dago. Izan ere, *Temple auziagatik* prebarkazioa egotzita, 4. Ataleko hiru magistratuak —Carlos Cezon, Juan Jose Lopez Ortega eta Carlos Ollero— kargutik kendu zituzten behin-behinean; eta Abril haien ordeztatu direnek edo 4. Atalerako behin betiko izendatzen dituzten epaileek epaituko duten ez da erabaki.

Atzo idatzia igorri zuen Iñigo Iruinek Auzitegi Nazionalera, horri buruz galdetuz. Izan ere, orain Antonio Diaz Delgado dago 4. Ataleko magistratuaren artean: bera izan da erregu helegitea atzera bota duen epaimahai buru. Diaz Delgadok, baina, 1. Atalean jardun zuen aurrez; eta atal horrexek aztertu zuen —eta atzera bota— Jon Abrilen epaiketa bertan behera gera zedin defentsak aurkeztu zuen helegitea, iazko apirilaren 26an, Diaz Delgado tarteko zelarrik. Auzitegiko araudiak galarazi egiten du helegitea aztertu duen magistratua epaiketan aritzea: batera ezin dira.

EPAIKETA. Auzipetu bat agertu ez, eta bilatu eta atxilotzeko agindua eman dute

‘Bizkaia komandoko’ ustezko bost kide eta 16 laguntzaileren epaiketa hasi da Madrilen

Erredakzioa | DONOSTIA

ETAko *Bizkaia komandoko* ustezko bost kide eta 16 laguntzaileren aurkako epaiketa hasi da Madrilgo Auzitegi Nazionalen. 1998an atxilotu, eta Juan Maria Atutxa eta Carlos Iturgaitzen aurkako atentatu saioak egotzen dizkiete. Auzia Zigor Alorreko 3. Atalak darama.

Bost auzipeturi ETAko *Bizkaia komandoko* kide izatea leporatzen diete, eta espetxe zigor handiak eskatzen ditu fiska-

lak: Iñaki Bilbaori 113 urte, Javier Morenori 95, Olga Sanzi 92, Urko Labeagari 64 eta Patxi Marquesi 42. Talde armatuari laguntza ematea leporatuta, berriz, zazpina urteko espetxea eskatu du Iñaki Fernandez de Nograro, Andone Soldevilla, Carlos Garrido, Izaskun Labeaga, Jose Luis Blanco, Marta Picaza, Jesus Bado, Jagoba Terrones, Mila Etxebarria, Estibaliz Olabarrieta, Juan Mari Toquero, Alfredo Llorente, Blanca Aurrekoetxea, Jose Angel Matienzo,

Irena Mato eta Mikel Armendarizentzat. Auzipetu baten arre-barentzat, berriz, bi urteko espetxea eskatu du fiskalak, kaudimen ezagatik.

Fernandez de Nograro atzo ez zen agertu epaiketara, eta hura bilatu eta atxilotzeko agindua eman du epaimahaiak.

Atariko kuestioetan, defentsak hiru auzi bereizi egitea eskatu zuten, «epaimahaiak ekintzak eta auzipetu bakoitzaren esku hartzea hobeto ezagutu zezan»; Armendariz aparte ez auzipetzea ere eskatu zuten. Epaimahaiak ez zituen onartu.

Bestalde, epaiketara bidean bost lagunek auto istripua izan zuten, Etxerat-ek jakinarazi duenez. Onik daude guztiak.

LAGUNAREN



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Batasunak deituta, elkarretaratzea egin zuten atzo udaletxean.

Batasunaren iritziz, Bilboko alkatearentzat «ikurrina udaletxean jartzea legez kanpoko da»

Lander Etxebarria Bilboko Batasuneko bozeramaileak adierazi duenez, «Azkuna alkatearentzat legez kanpoko da ikurrina udaletxean jartzea». Iaz Aste Nagusian udaletxean ikurrina jartzeagatik udaletxeko gobernu taldeak bi gazteri jarritako salaketa gogoratu zuen. Bi gazteen aurkako epaiketa atzo egin zen, eta protesta egiteko 20 lagun elkartu ziren atzo udaletxe aurrean, *Azkuna-PNV: ikurrina ere ilegala?* lelopean. «Zorionez, bi gazteak aske» geratu direla gaineratu zuen Etxebarriak.

Terrorismoaren Biktimen Fundazioaren egituraketa hitzartu dute PPK eta PSOEk

Terrorismoaren Biktimen Fundazioaren egitura hitzartu dute PP eta PSOEk. Espainiako Gobernuako presidente ohi Adolfo Suarez izango da lehendakaria. Besteren artean, Abel Matutes, Gorka Landaburu kazetaria eta Francisco Llera izango dira biktimen elkarreko kideak.

Europar Mugimenduko Euskal Kontseiluaren lanaren erakusketa

Sabino Arana Kultur Elkar-goak eta Eusko Ikaskuntzak Europar Mugimenduko Euskal Kontseiluaren sorrera eta haren ibilbidea eza-gutarazteko erakusketa eta mahai-ingurua antolatu dituzte. 50 urte bete dira Europar Mugimenduko Euskal Kontseilua sortu zela, eta gaur aurkeztuko dituzte ekimenak horren karietara.

EAErako Segurtasun Batzorde Teknikoaren lehen bilera ostegunean egingo da, zinegotziak hizpide

Javier Balza EAEko Herrizaingo sailburuak Segurtasun Batzorde Teknikoaren lehen bilera antolatu du datorren ostegunean, Arkauten. EAEko alkate eta zinegotzien segurtasuna bermatzeko Juan Jose Ibarretxek egindako bileraren ondorioz sortu da Batzorde Teknikoa. Balzak Pedro Morenes Espainiako segurtasun idazkariari eta Batasunaz besteko alderdi politikoei bilerara joateko deia egin die. PP, PSE-EE, EAJ, EA eta EB-IUK ordezkariak bidaliko dituztela ziurtatu dute.

Parlamentuko lana eragozteko leporatu dio PSNk UPNri

Nafarroako Parlamentuko lana «zangotrabatzea» leporatu dio PSNk UPNri. Juan Jose Lizarbe PSNko idazkariaren irudiko, «demokraziaren erabilera maltzurra» egiten ari diren erre-gionalistak, CDNren laguntzarekin. Lizarbek dio Legebiltzarrean UPN eta CDNk nahi dituzten lege proposamenak eztaidatzen direla bakarrik. Izan ere, beste alderdien proposamenak Parlamentuko Mahaiaren atzera botatzen dira.

Urnietatelen inguruko «kontu ilunak» argitzeko eskatu dio Batasunak EAJri

Urnietako Batasunak prentsaurrekoa eman zuen atzo, EAJri Urnietatelen konpainiaren inguruko azalpenak eskatzeko: «Informazio pribilegiatua erabili den kasu bat izan liteke, eta eroskeria ere izan daiteke». Duela gutxi Maixa Lizeaga alkateak eta EAJko zinegotzi batek karguak utzi zituzten, Urnietatelen inguruko gorabeherekin lotuta, eta Batasunak argibideak nahi ditu.